

Kultura eta musika: sorkuntzarako espazioen beharra.

Unai Ortiz Urbizu.

Deustuko Unibertsitateko Filosofia, Politika eta Ekonomiako gradu 4. mailako ikaslea.
UN Etxea - UNESCO sustatzeko Euskal Herriko elkartearen Transformaziorako Kultura arloan egindako praktikak.
2025eko Otsaila.

"Goiz batzuetan, mundu perfektu batean, jaiki, kafe bat hartu, hausnartu eta esango zenuke: «Oso ondo, gaur tailerrera noa lanpara batean lan egitera». Batzuetan ideia bat bururatzen zaizu, ikusten duzu, baina gauzatzeko nik «instalazio» deitzen diodana behar duzu. Adibidez, agian lantegi bat behar duzu lan egiteko edo margotzeko. Edo musika egiteko estudio bat. Edo ordenagailu-gela bat, idazteko. Funtsezkoa da horrelako instalazio bat izatea, edozein unetan, ideia bat bururatzen zaizunean, hura gauzatzeko lekua eta beharrezko tresnak izateko.

Horrelako tokirik ez baduzu, askotan inspirazioa iristen zaizu, ideia, baina ez dituzu behar diren tresnak, ezta ideiarik koherentzia emateko lekua ere. Eta ideia iltzatuta geratzen da, korapilatu egiten da. Denborarekin, joan egiten da. Ez zenuen aprobetxatu, eta horrek min ematen dizu ariman."

David Lynch - *Atrapa al pez dorado* (berezko itzulpena).

Sarrera

Eskubide kulturalak, giza eskubideen multzoaren barruan oso gutxi zainduak egon arren, eskubide horien funtsezko zati bat dira lankidetzaren, sostenibilitatearen eta, azken buruan, bakearen etorkizuna lortu nahi denean. Artearen eta kulturaren bidezko errealizazio pertsonala behar-beharrezkoa da garapen eta aurrerabiderako, bai maila indibidualean, bai maila sozialean. Gainera, arteak sortzen duen gizarte-esnatzea funtsezkoa da gizarte zibila antolatzeke, espazio komunak sortzeko eta egungo arazoaren aurrean alternatibak planteatzeko.

Musikaren arloari dagokionez, adin guztietako pertsona guztiek adierazpen artistiko hau erraz eskura dutenez, kontzientziaziorako eta eraldaketarako tresna ezin hobea da, bereziki artea edozein formatan garatzeko edo kontsumitzeko zailtasunak izan dituzten eta historikoki zapalduta egon diren estratu sozialen artean. Angela Davis filosofo

estatubatuarraren arabera, musika adierazpen artistiko boteretsuenetako bat izan da komunitate afroamerikarraren barruan justiziaren eta erresistentziaren aldeko borrokan. Afrikako milioika pertsona bortxazko lanak egitera behartu zituen indarkeria eta esplotazio transatlantikoaren garaian, haien nortasun kulturalak desagerrarazten saiatu ziren. Hala ere, musika erresistentzia eta baieztapen kolektiborako gune bihurtu zen. Muturreko zapalkuntza baldintzak izan arren, esklabo bihurtutako pertsonak beren historiari eusteko, lotura komunitarioak sendotzeko eta beren gizatasuna zaintzeko modu bat aurkitu zuten kantuan eta musika erritualetan.¹ Beraz, musika entretenimendu edo kontsumo-objektu hutsa izan daiteke, baita gizartearen esnatzeko eta bidegabekeriaren aurka borrokatzeko motorra ere.

Musika hizkuntza bat da, garenaren eta sentitzen dugunaren adierazpena, eta, esan dudan bezala, aldaketarako tresna bat. Beraz, musika modu aktiboan (sortzaile gisa) eta pasiboan (entzule gisa) bizi ahal izatea borrokatu beharreko eskubidea da eta izan behar du beti. Artikulu honen bidez, gaur arlo honetan aurkitzen dugunaren balantzea egin nahi da eta musika berdintasunean sortzeko eskubideari buruzko aldarrikapena egin. Horretarako, eskubide kulturei buruzko marko teoriko labur batetik abiatuko da, eta, ondoren, musikaren egoera modu zehatzagoan aztertuko da, Estatu mailan musika sortzeko eta zuzenean aurkezteko espaziorik ez dagoela ikusaraziz. Musikari gisa pertsonalki ezagutzen dudan errealitatea da, eta nire esperientziei eta ingurukoei esker ikuspegi hurbilagoa eskain dezakedala uste dut.

Eskubide kulturalen arloko gaiaren egoera

Eskubide kulturalak 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean jasota daude, hain zuzen ere 27. artikuluan lehen puntuan, honako hau aipatzen denean: «Pertsona orok du eskubidea komunitatearen bizitza kulturean askatasunez parte hartzeko, arteaz gozatzeko eta aurrerapen zientifikoan eta horren ondoriozko onuretan parte hartzeko».² Gainera, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren 15. artikuluan jasotzen dira, estatu kideek bizitza kulturean parte hartzeko eskubidea aitortzen dutelako, eskubide hori bermatzeko neurriak aurkeztu dituztelako, eskubide hori errespetatzeko konpromisoa hartzen dutelako eta eskubide horren garrantzia aitortzen dutelako.³

¹ A. Davis, *Mujeres, cultura y política*. En: altamarea, Madrid, 2024, p. 235.

² Asamblea General de las Naciones Unidas. Declaración Universal de Derechos Humanos (DUDH). Nueva York: Asamblea General de las Naciones Unidas, 1948.

³ Asamblea General de las Naciones Unidas. Pacto Internacional de Derechos Económicos, Sociales y Culturales. Nueva York: Asamblea General de las Naciones Unidas, 1966.

Azkenik, nabarmentzekoa da 2009an Giza Eskubideen Kontseiluak "Eskubide kulturalen esferan aditu independente" bat izendatu izana, geroztik luzatuz joan den mandatuarekin. Eskubide kulturalen arloko NBEko Errelatore Bereziak, eskubide horiek Giza Eskubideen barruan ikusaraztea du helburu, baita eskubide horien urraketan larritasuna ikusaraztea eta pertsona bakoitzari eskubide hauen bidez garatzeko ematen zaion aukera zabaltzea ere.⁴

Gizarte zibilari dagokionez, 2007an argitaratutako Eskubide Kulturaleri buruzko Friburgoko Adierazpena nabarmendu behar da. Testu garrantzitsu hau "Grupo de Friburgo" izenekoak sinatu zuen, Suitzako Friburgo Unibertsitateko Etika eta Giza Eskubideen Diziplinarteko Institututik abiatuta. Adierazpenak NBEk jorratutako gaiak ikuspegi berri batetik jaso eta garatzen ditu, eta eskubide kulturaleri buruzko hausnarketa eta testu berrietarako bidea irekitzen.

Bide horretan, Alfons Martinell eta Mireia Tresserras testu bat aurkituko dugu, giza eskubideen familiaren barruan eskubide kulturaleri ematen zaien garrantzia gutxienekoa dela aldarrikatzen duena.⁵ Nahiz eta garrantzitsua izan, eskubide kulturalen multzo horrek ez du arreta handirik jasotzen. Hori islatzen da, adibidez, sektoreko profesionalek eskubide horiei buruz ez dakiten momentuan, eta kulturari buruzko berariazko Garapen Jasangarrirako Helburu faltan. Gainerako helburuetan zeharkakotasuna alegatu arren, kulturako 18. GJHa faltan botatzen da.⁶

Illo beretik, eskubide kulturalak multzoarentzat "bateratzaileak" dira, beste eskubide batzuk bultzatzen eta ezagutarazten dituztelako. Adibidez, lotura nabarmena dago eskubide kulturalen eta bakearen aldeko hezkuntzaren edo bake-kulturaren garapenaren artean; izan ere, kulturak espazio komunak sortzen ditu, lotura komunitarioak sortzen ditu, identitate desberdinak indartzen ditu, dibertsitateak ikusarazten ditu, balioak transmititzen ditu eta etengabeko elkarriketan dago beste azpisistema batzuekin, hala nola

⁴ Naciones Unidas. Relator Especial en la esfera de los derechos culturales.

<https://www.ohchr.org/es/special-procedures/sr-cultural-rights#:~:text=Alexandra%20Xanthaki%20fue%20nombrada%20Relatora,culturales%20en%20octubre%20de%202021.>

⁵ A. Martinell y M. Tresserras, Educar por la paz desde los derechos culturales. En: Cátedra UNESCO Pau Casals, 2024

⁶ Aipatzekoa da Eusko Jaurlaritzak Hizkuntza eta Kultura Aniztasunari buruzko 18. GJH bat onartu duela, eskualde mailan eragina duena, bere helburu eta lantaldeen bitartez. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu *Libro 5. Agenda 2030 V. Contribución a los ODS 16 y "18"*. Págs. 71-82.
https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/compilacion20_24_agenda2030/es_def/adjuntos/Libro-5.pdf

osasunarekin edo ekonomiarekin.⁷ Horrelako eskubideei jaramonik ez egitea giza eskubideen errespetuak bere osotasunean arrakasta lortzea zailtzen duen akatsa da.

Horregatik, Nazio Batuek eskubide horien garrantzia azpimarratzen jarraitzen dute, beste gauza askoren artean, eskubide kulturalen defentsan estatuak duten funtsezko eginkizuna berresten duten ebazpenekin, eskubide horiek inolako bereizkeriarik sortu gabe sustatzeko eta babesteko erantzukizunarekin. Gainera, aniztasun kulturalarekiko errespetua aitortzen dute, hainbat lekuren arteko trukeak eta loturak sortzeko gaitasunarekin; eta aitortzen dute, halaber, eskubide horien errespetuak elkarrekiko tolerantzia, elkar ulertzea eta gizarte-kohesioa sustatzen dituela, eta, beraz, funtsezkoak direla giza garapenerako, bakerako eta pobrezia desagerrarazteko.⁸

Azpimarratzekoa da eskubide kulturalak sustatzeko eta babesteko modurik onenak bilatzearen garrantzia, eskualdeko erakundeetatik hasi eta estatuaz gaindikotaraino, bai eta maila anitzeko edo eragile ezberdinen arteko lankidetzak sustatzea ere,⁹ eraginkortasun eta efizientzia handiagoa lortzeko. Era berean, kontuan hartu behar da kulturarako eskubideak pertsona guztientzat bermatuta daudela, edozein delarik ere pertsona horien generoa, jatorria, gizarte-maila, adina, erlijioa, hizkuntza... Hau da, pertsona guztiek aukera izatea bizitza kulturala baldintza berdinetan eskuratzeko.

Azkenik, Nazio Batuen ebazpenetatik, irmoki kritikatzeko da estatu askok, giza eskubideen sustatzaile nagusiak izan beharko luketenek, beste gai batzuk lehenesten dituztela, hala nola garapen ekonomikoa, pertsonen kultura-eskubideak errespetatzeko, babesteko eta sustatzeko betebeharrari jaramonik egin gabe, hauek duten irismenari buruzko ulermen ezagatik. Aurrerapen batzuk gorabehera, bidea luzea eta korapilatsua da oraindik. Erakundeek elkarrekin lan egin behar dute guztien bizitza kulturala bermatzeko, Nazio Batuek eskubide kulturei buruz emandako ebazpenen arabera.

⁷ A. Martinell y M. Tresserras, Educar por la paz desde los derechos culturales. En: Cátedra UNESCO Pau Casals, 2024

⁸ Asamblea General de las Naciones Unidas. Resolución aprobada por el Consejo de Derechos Humanos el 31 de marzo de 2022 49/16. Promoción del disfrute de los derechos culturales de todos y respeto de la diversidad cultural. Nueva York: Asamblea General de las Naciones Unidas, 2022.

⁹ Alto Comisionado de las Naciones Unidas para los Derechos Humanos.
<https://www.ohchr.org/es/about-us/high-commissioner>

Musikarako eskubidea: egungo egoera

Bizitza kulturean parte hartze horren zati handi bat musikaren bidez lortzen da. Uste dut nahiko argi utzi dudala arteak eta horren barruan musikak duen gizarte-balioa, baina beharrezkoa da hura sortzeko eta gozatzeko baldintza zehatzei erreparatzea.

Nahiz eta paperak dena, edo, gutxienez, ia dena, jasaten duen, musika sortzeko espazioetara eta sorkuntza horiek publiko batekin partekatu ahal izateko espazioetara sartzeko errealitatea oso eskasa da. Musikariok gure instrumentuari ordu batzuk eskaini behar diegu, bai banaka, nolabaiteko teknika eta trebetasunak garatu ahal izateko, bai taldean, beste gaitasun mota batzuk lortzeko eta musika talde gisa abestiak sortu ahal izateko (nire ustez, jarduera honen alderdi aberasgarriena).

Horretarako, gaitutako espazio bat behar da. Baldintzak, lehenik, musikariarentzat egokiak izan behar baitira, ikasteko beste edozein arlotan bezala erosotasunez ikasi ahal izateko. Bigarrenik, espazio hauek inguruko pertsonentzat egokiak izan behar dira, lokala intsonorizatuz eta egokituz, haien bizi-baldintzak ez aldatzeko. Hori erakunde publikoek sustatu beharko lukete, baina udalek edo beste administrazio publiko batzuek oso lokal gutxi egokitu dituzte. Beraz, entsegu-lokalen hornitzaile nagusiak erakunde pribatuak dira; holan, salatzen bada administrazio publikoak etekin ekonomikoan zentratzen direla giza eskubideen gainetik, eremu pribatuan logika hori askoz ere nabarmenagoa da.

Ondorioz, bi hitz nabarmentzen dira: eskasia eta garestia. Lehenengoari dagokionez, talde berriak sortzea edo daudenak haztea eragozten ari da. Eskasia hori, gainera, modu desberdinean banatuta dago, eta udalerri txikietan bizi diren pertsonen hiri handietara joan behar dute jarduera horiek egin ahal izateko, eta horrek denbora eta ahalegin bat eskatzen du, mundu guztiak ez duena.

Eskasiak ere desberdintasuna sortzen du komunitateen artean. Zentzu horretan, Extremoduroko abeslaria den Robe Iniestak 2014an Extremadurako domina eman zioten aktuaz baliatu zen entsegu-lokalen falta eta, oro har, artea ekoizteko espaziorik eza salatzen. Berak kontatzen du nola emigratu behar izan zuen musikari ekin ahal izateko, eta esan zuen beharrezkoa zela Extremadurako inork bere lurra utzi behar ez izatea arteari ekin ahal izateko. Errealitate hori autonomia-erkidego honetatik haratago hedatzen da.

Garestiari dagokionez, bai musika-tresnek bai entsegu-lokalek (orduka eta hileko alokairuan) oso prezio garestiak dituzte, eta herritar gehienek ezin dituzte prezio horiek beren gain hartu. Egoera horrek sortzen duen arazo nabariena errenta baxuenak dituztenen baztertua da; horregatik, aniztasuna desagertu egiten da eta, oro har, musika eta artea sortzeko aukera diru-sarrera handienak dituzten pertsonen pribilegio bihurtzen da.

Gainera, kontzertu-aretoak taldeei jotzeagatik ordaintzetik kobratzera pasatu dira pixkanaka. Horrek zaildu egiten du sortzen ari diren taldeak eszenatoki batera igotzea eta esperientzia eta audientzia berria lortzea.¹⁰

Instituzioak erregulazio bermatzailea eta errespetuzkoa egiten ari dira komunitatearekiko, eta kontrol handiagoa ezartzen dute espazio publikoen baimenen bidez, kontzertuak bezalako ekitaldiak egin ahal izateko. Guztion bizi-kalitatea bermatzeko neurri ulergarria bada ere, kultur erakundeak nabarmen indartu behar dira musika sortzeko eta zuzenean gozatzeko eskubidea ez kentzeko.

Badira espazio publiko batzuk musika egin ahal izateko eta instrumentuak modu partekatuan edukitzeko, bai eta mota desberdinetako dirulaguntzak eta bestelako laguntzak ere, instituzioek hain herrikoia ez den edo hain irisgarria ez den musika bultzatzeko (musika komertzialagorako laguntza-programak ere badaude), bai eta aniztasuna ikusarazteko eta generoagatiko, jatorriagatiko edo gaitasunagatiko bazterketak saihesteko ere. Era berean, gizarte-ekimen batzuek, instrumentuak errazteaz gain, musika-hezkuntzarako sarbide irekia bermatzen dute. Alderdi honek, testuaren garapenean funtsezkoa ez izan arren, garrantzi nabarmena du, eta gaur egun arazo bat ere bada, plaza gutxi eta garestiak eskaintzen direlako.¹¹

Hala ere, musikarien ikuspegitik jasotzen diren laguntzak ez dira nahikoak, eta ez diote arazo erantsi bati erantzuten: pertsona guztiek arte hori ekoizteko moduko espazio fisikorik gabe, bukatutako obretarako ondoren ematen diren laguntzek aniztasunaren eta inklusioaren sentsazio faltsua baino ez dute sortuko.

Aldarrikapena

Musika hizkuntza bat gehiago da, zaintzen ez bada galdu egiten da. Zaintzeko hizkuntza zail bat da, baliabide garestiak behar baititu, hala nola tresnak, hezkuntza eta praktikatzeko eta jotzeko espazioak. Hala eta guztiz ere, garrantzi berezia du pertsona guztien bizitzan, eta, horregatik, hau zaintzea eta kultura munduan sartzeko aukera bermatzea behar-beharrezkoa da.

¹⁰ Gai honi buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, oso komenigarria da elDiario.es-eko artikulu hau irakurtzea: https://www.eldiario.es/cultura/musica/si-quieres-venir-tocar-son-300-pavos-momento-salas-pasaron-pagar-cobrar_1_11002458.html

¹¹ Euskadin Etorkizuna Musikatan bezalako erakundeek papera azpimarratu behar da: <https://www.etorkizunamuskatan.org/>

Nire bizipen pertsonaletik eta hainbat artistak nirekin partekatu dituzten esperientzietatik hitz eginik, ahanztura sumatzen da. Entsaiaitzeko eta jotzeko espaziorik ez dagoenez, bizilekuko espazioak edo alokairuko beste lonja batzuk egokitu behar ditugu, halakorik izanez gero, eta horrek are baliabide gehiago eskatzen ditu. Musika lanbide bihurtzea nahi izanez gero, exigentzia are handiagoa da, eta planteatu egin behar da, lehen esan bezala, biztanleriagatik edo kultura-politika hobetoagoengatik beharrian horiek ase ditzakeen lurralderen batera emigratzea.

Aniztasunari dagokionez, musikaren eremuan kultura-bizitzarako sarbidea errenta altueneko pertsonen soilik badute, errenta baxuagoa duten urratutako pertsona talde guztiek ez dute sorkuntzarako aukerarik izango, edo, edukiz gero, askoz ere prekarioagoa izango da. Horrek ahotsik gabe uzten du biztanleriaren zati bat, bere egoeraz kontzientziatzeko eta ikusarazteko erabil dezakeena.

Egoera horretan, erakunde publikoen ekintzak behar dira kulturarako sarbidea bermatzeko. Politikak musika-sorkuntzan aritzeko aukera intersekzionalki bermatzera bideratu behar dira, hau da, errentari ez ezik, generoari, jatorriari, gaitasunei eta abarri buruzko gaiak kontuan hartuta. Horregatik, musika benetan anitza eta irisgarria ziurtatzeko, honako hau aldarrikatzen da: entsegu-lokalak behar dira, doako kontzertu-aretoak behar dira, kultura-politika sendoak behar dira eta baita konpromiso politikoak ere. Horrela bakarrik berma daiteke guztiontzat kulturarako eskubidea. Musikak eskaintzen digun adierazpen-gaitasuna zaintzeak gure komunitatea zaintzea esan nahi du, bakearen aldeko hezkuntzan laguntzea esan nahi du, eta giza eskubideak errespetatzea eta zaintzea esan nahi du. Kultura zaindu behar dugu, kultura horrek gu zaindu gaitzan.